

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
<p>1. Elektrizitatearen oinarrizko kontzeptuak ezagutu eta barneratu.</p>	<p>1.1. Elektrizitatea (korrante elektrikoa) nola sortzen den bereganatu du eta atomoaren egitura ezagutu du.</p>
	<p>1.2. Energia berriztagarriak ezagutu ditu</p>
	<p>1.3. Zirkuitu elektrikoaren oinarrizko elementuak ezagutu eta bakoitzaren funtzionamendua aztertu eta desberdindu ditu (funtsezko elementuak, maniobra elementuak, babes elementuak...).</p>
	<p>1.4. Zirkuitu elektrikoaren definizioa eta funtzionatzeko baldintzak zeintzuk diren ikasi ditu.</p>
	<p>1.5. Zirkuitu elektrikoaren elementuen adierazpen-ikurrak eta beraien funtzioak ikasi ditu.</p>
	<p>1.6. Zirkuitu laburra identifikatu du eta honen ondorioaz jabetu da.</p>
	<p>1.7. Fusiblearen eragina ezagutu du.</p>
	<p>1.8. Eroaletasuna aztertu eta material eroale eta isolatzaileak identifikatu ditu.</p>
	<p>1.9. Konexio motak (seriean, paraleloan eta mistoa) identifikatu eta bakoitzaren ezaugarriak bereganatu ditu.</p>
	<p>1.10. Zirkuitu elektriko sinple bat eraikitzen ikasi du.</p>
	<p>1.11. Eroaletasuna material desberdinekin frogatzen ikasi du.</p>
	<p>1.12. Konexio desberdinak eraikitzen eta beraien ezaugarriak frogatzen ikasi du.</p>